

Azaroaren 14an

URTEAN ZEHARREKO 33. IGANDEA

Pobreen Mundu Jardunaldia

Agurra

Gure sinesmena ospatzeko Jainkoaren izenean bildurik dagoen kristau-batza honetan, Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Kristau urtearen, liturgi urtearen amaierara gerturatzeko ari gara: gaurko ospakizunak erne bizitzeko deia egiten digu, historiaren amaieran Jaunarekin topo egiteko prestatuz.

Gaur, gainera, Eliza osoak Pobreen Mundu Jardunaldia ospatzen du, goiburu honekin: “Behartsuak beti dituzue zuen artean”. Eliza osoa errukiaren dinamikan murgiltzeko eta zapalduak eta baztertuak lehenesteko deia egiten zaigu. Eukaristia, errukiaren jai pozgarria ospa dezagun gogotsu.

Damu-otoitza

Eukaristi ospakizun honen hasieran, eska diezaiogun Jainkoari bihotz-berritzearen grazia; horrela baketzea lortuko dugu eta elkartuago egongo gara Jainkoarekin eta geure senideekin.

—Jesus Jauna, gure **ba**kea zarena. Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guretzat **ogi** egin zinena. Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bizia **ema**ten diguzuna. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Jainko gure Jauna,
 egin gaitzala zure laguntzak beti alai zure zerbitzuan,
 ondasun ororen iturri zaren horri emanak
 bizitzea baita guretzat
 egiazko zorion betea eta iraunkorra.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Salbamera ez da geuk irabazteko kontua. Jesu Kristorengan salbatuak gaude guztiok. Harengan bizitzea eta Harengan itxaropen izatea da egiten zaigun deia.

Lehenengo irakurgaia (*Dn 12, 1-3*)

Danielen Profezia liburutik

Garai hartan, aingeruen buruzagia eta zure herriaren zaindaria den Mikael agertuko da. Larrialdi-garaia izango da, herriak izaten hasi zirenetik berdinik gabea. Baina aldi hartan salbatuko da zure herria, biziaren liburuan beren izena idatzia duten guztiak, alegia.

Itzarri egingo da hilobietan lo dagoen asko: batzuk betiko bizirako, beste batzuk betiko lotsarako. Ortziaren distiraz distiratuko dute jakintsuek, eta besteei bide zuzenean ibiltzen irakatsi dietenek izarrek bezala betieran.

Erantzun-salmoa (*Sal 16 [15], 5 eta 8. 9-10. 11*)

Zu zai - tut, Jau - na, on - da - su - na.



∞. Jauna, Zu zaitut neure ondarea, neure **edontzia**,
zure esku dago nire **zoria**.

Begi aurrean dut Jauna **etengabe**;
hura eskuinean dudala, ez naiteke **dardara**. ∞.

∞. Horregatik, alai dut bihotza, pozik **erriak**,
atsedenean lasai **gorputza**.
Ez baituzu nire bizia Herio-leizera **egotziko**,
ezta ere zeure fededuna hilobian gal**tzen** utziko. ∞.

∞. Bizirako bidea erakutsiko **didazu**;
alaitasunez beteko nauzu zeure **aurrean**,
zorionez betiko zeure **ondoan**. ∞.

Bigarren irakurgaia (*Heb* 10, 11-14. 18)

Hebrearrei egindako gutunetik

Apaiza egunero ari ohi da bere kultu-zerbitzuan, bekatua inola ere kendu ezin duten opari berberak behin eta berriz eskaintzen. Kristo, ordea, bekatuengatik opari bat bakarra eskaini ondoren, Jainkoaren eskuinaldean eseri zen behin betiko. Eta, orain, Jainkoak etsaiak oin-aulkitzat noiz jarriko dizkion itxaroten dago. Izan ere, opari bakar baten bidez beren betera eraman ditu Jainkoarentzat behin betiko sagaratuak direnak.

Horrela bada, bekatuak barkaturik daudenean, ez dago bekatuen barkamenerako opari beharrik.

Aleluia (Lk 21, 36)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

∇. Egon erne eta egin otoitz une oro,
zutik egon ahal zaitezten Gizonaren Semearen aurrean. ∇.

Ebanjelioa (Mk 13, 24-32)**Homiliarako argibideak***Kristau konbentzimenduak*

Banaka banaka hiltzen ari ziren Jesus ezagutu zuten ikasleak. Gelditzen zirenek hura ikusi gabe sinesten zuten haren baitan. Eukaristian ezin ikusizko moduan presente zegoela aitortzen zuten, baina noiz ikusiko zuten haren aurpegi bizi-bizi hura?, noiz beteko zen harekin betiko topo egiteko zuten gogo hura?

Jesusen hitza maitasunez eta fedez gogoratuz jarraitzen zuten. Horixe zuten beren janaria pertsekuzio-aldi latz haietan. Baina noiz egiaztatu behar zuten hitz haiek egiazkoak zirela? Ez ote ziren joango hitz haiek apurka-apurka ahantziz? Urteak joan urteak etorri, baina sekula ez zen iristen hain hertsiki irrikatzen zuten Azken Eguna; zer pentsatu handia ematen zien horrek.

Haien esperantza elikatu nahiz, hainbat konbentzimendu eskaini nahi ditu Markosek bere hitzaldi apokaliptikoan. Ez da hartu behar, ordea, hitzaldi hori letraren harira, baizik gaur hain arrotz gertatzen

zaizkigun irudi eta sinbolo horietan datorren fedea aurkitzen ahalegindu behar dugu.

Lehenengo konbentzimendua: Gizadiaren historia zoragarri hau bere betera iritsiko da egun batean. Urteen segida adierazten duen «eguzkia» itzaliko da. Hilabeteen erritmoa markatzen duen «*ilargiak*» ez du gehiago distiratuko. Ez da izango gau-egun bikoterik, ez denborarik. Gainera, «*zeruko izarrek eroriko dira*», zeruaren eta lurraren arteko distantzia desegingo da, ez da orduz gero espaziorik izango. Oraingo bizitza hau ez da betiko. Egun batean behin betiko Bizia iritsiko da, espaziorik eta denborarik gabea. Jainkoaren Misterioan biziko gara.

Bigarren konbentzimendua: Jesus itzuliko da eta ikasleek ikusi ahal izango dute desiratzen duten haren aurpegia: «*Gizonaren Semea etorri datorrela ikusiko dute*» Eguzkia, ilargia eta astroak amatatuko dira, baina mundua ez da argirik gabe geldituko. Jesus izango du betiko argi, gaur abusuaren, injustiziaren eta gezurraren hain esklabo den giza historian egia, zuzentasuna eta bakea ezartzen dituela.

Hirugarren konbentzimendua: Berekin ekarriko du Jesusek Jainkoaren salbamendua. Aitaren ahalmen handia eta salbatzailea berekin duela etorriko da. Ez da etorriko mehatxuzko itxuraz. Ebanjelariak ez du aipatzen hemen auzi- eta gaitzespen-konturik. «*Bere hautatuak elkartzera*» dator, haren salbazioa fedez espero dutenak biltzera.

Laugarren konbentzimendua: Jesusen hitzak «*ez dira igaroko*» Ez dute galduko beren indar salbatzailea. Jesusen jarraitzaileen esperantza eta pobreen arnasa elikatzen jarraituko dute. Ez goaz ezerezera eta hutsera. Jainkoa dugu zain gu besarkatzeko.

Jainkoaren herriaren otoitza

Eska diezaiogun Jaunari entzun ditzala gure otoitzak eta onar ditzala onginahiz gure eskariak:

- Jaunak, on guztiaren sortzailea denak, dei egin diezaiela gaur ere erlijioso/erlijiosa bizitzan jarraituko dioten gizon-emakumeei. Eska diezaiogun Jaunari.
- Jaunak, indar guztien iturria denak, argi ditzala herrietako agintariak, bere eginkizunetan eta erabakietan asma dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Jaunak, bizitzaren emalea denak, begira diezaiela errukiz gose direnei eta eman diezagula guztioi horiekiko arreta izateko grazia. Eska diezaiogun Jaunari.
- Jaunak, maitatzeko agindu zigunak, eman diezagula etsaiak maitatzeko indarra eta inori gaitzik ez egiteko dohaina. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, zeure herria behin ere ahazten ez duzuna, entzun gure otoitzak eta emaguzu hildakoak piztuko direla sinestearen poza; isur gudan Zure Espiritua, maitasunez itxaron dezagun herri guztiak bere erreinuan bilduko dituen Zure Semearen etorrera. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Sakramentuaren dohain santuak harturik,
apalik eskatzen dizugu, Jauna:
zure Semeak bere oroigarri egiteko
agindu zigun Eukaristia honek
handi dezala gudan maitasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**